# nazio politikaren ondorioak

*Par Txillardegi*

E.S.S.B.-a, Kzarren inperioaren gainean eraikia dago. Eta Kzarren inperioa, gainerako inperio guztiak bezala, gerlaren eta okupazio militarraren bitartez eraiki zen : bai Ekialdetik bai Hegoaldetik, mugaren zabalketa izan zen Moskuren politikaren ezaugarri nagusia.

1917ko Iraultzarekin batera, egoera hori funski aldatzeko asmoa gorpuztu zen. Autodeterminazioa errespetatzen hasi zen ; eta garai hartan askatu ziren Estonia, Letonia eta Lituania. Suomi ere, nahiz bortizkeriarik gabe, garai hartan askatu zen. Eta Kaukasoko eskualdeetan Errepublika batzu eratu ziren, nahiz hauek berehala "normalizaturik".

Eta 15 Errepublikatako Federazioa sortu zen ; beste hamaika unitate autonomorekin batera. Berrikuntza gaitza.

Errusiarkuntza, Kzarren garaiko errusiarkuntza edo errusifikazio hura, gelditu egin zen. Teorian bederen. Errusieraz beste dozenaka hizkuntza bihurtu ziren eskola hizkuntza, batzutan ere alfabetoa ere prestatzen zitzaielarik.

Akatsak, halere, nabarmen zeuden ; ondorioak orain bezain argiro inoiz agertu ez badira ere. Errusiarkuntza zaharrari, errusiarkuntza "ezkertar" bat jarraitu baitzitzaion. Nolatan ?

Lau puntu nagusitara laburbilduz, honela :

1) Herrien autodeterminazioari, bai. Baina aurki, esan dugun bezala, borroka "orokorra"ren izenean eta etsai "nagusi"-ei kontra hobeki egitekotan, pratikan ahantzia.

2) Alderdi Komunista bat eta bakarra eta ongi batua. Nahiz E.S.S.B.-a Federazio bat izan. Alderdiaren izenean, horretara, eta Legetasun federalaren gainetik, bere ahalmen zentralistari eutsi dio Moskuk ; errusiarkuntza orain "sozialismoa"ren izenean burutzen zelarik.

3) Hizkuntzaren alorrean, lurraldetasunik ez : errusiera bazter guztietan ofiziala, eta "homo sovieticus" berriaren mintzabidea ; nahiz Errepubliketan, errusierarekin batera, bertako hizkuntzak ofizialak izan. Eta praktikan benetan erabiliak : unibertsitatean, bulego ofizialetan eta abar. Armenian eta Estonian, adibidez.

4) Demografi mogimenduak kontrolatzeko tresnarik ez : "homo sovieticus" guztiek, hemengoak nahiz hangoak izan, eskubide guztia izan dute 70 urtez, errusiera hutsez bizitzeko. Errusierazko eskolak, bereziki, beti egon dira Federazio osoan (Belgikan edo Suitzan gertatzen denaren aurka). Errepublik Baltikoetan, horretara, errusiar etorkinak kopurutan ia-ia nagusi izatera heldu dira ; Letonian batez ere.

Lau ideia nagusi horien bidetik, Errepublika batzu (ez Baltikokoak bakarrik ; baina besteez oraingoz ez da ezer aipatzen) errusiartu egin dira. Eta abertzaletasunak separatismoaren forma hartzen ari da : hizkuntzaren politika eta demografiaren politika ezin konpondurik, errusiarrak ez diren herriek askatasun osoa eskatzen dute. Letonia izan da nabarmenena egun hauetan ; baina Lituania, eta Estonia batez ere, orpoz orpo datoz.

Egun hauetan "autofinantzaketa"ren urratsa eman dute Baltikoko Errepublikek ; ekonomi oinarririk gabe ez baitago ezer benetan lortzerik. Eta Gorbatxof-ek ez daki kinka horretatik nola irten.

Sozializta klasikoek (eta Euskal Herriko "fenomeno" batzuk) iragarri zuten aberrien heriotza ez baita gertatu. Aitzitik gero eta indartsuago agertzen baita herriek paretasunean eta autodeterminazioan bizitzeko dakarten joera.

## ECONOMIE

■ Il n'y aura jamais trop d'ouvriers pour le développement économique du Pays Basque, c'est ce que nous disions déjà dans le précédent numéro d'Enbata à propos de la réunion de Baigorri suscitée par Gexan Bidart.

Samedi dernier 29 juillet, se tenait à l'hôtel Bidartea l'assemblée annuelle de l'association pour le développement du P.B. autour de son président, M. Saint-Geours, de Guy Brana, vice-président du CNPF, et de M. Jaqué, président de la CCI de Bayonne.

On est ici fort loin des espérances du début où ce club de personnalités économiques, issues de la région où y ayant des attaches, comptait agir comme un "lobbying" pour dynamiser toute initiative sur le terrain. Ce réseau de relations au plus haut niveau, s'il a parfois fonctionné au profit de tel ou tel, semble aujourd'hui avoir inversé les fonctions. C'est le terrain qui nourrit l'essentiel des assemblées de l'association.

Ainsi on a reparlé, après l'AG de l'an dernier, du parc technologique de Bidart avec le maire de la commune et M. Gayas, directeur du district BAB. L'on a entendu aussi la série de courts exposés, toujours intéressants et vivants, de divers entrepreneurs sur leur propre expérience. On a appris de la bouche de l'industriel de Mauléon, Charles Etchandy, que ce que nous annoncions dans Enbata du 22 juin était en cours de réalisation. En effet, début juillet, l'ensemble des commerçants et entreprises de Soule a adressé à la Chambre de Commerce de Pau un courrier sollicitant leur détachement de cette Chambre au profit de celle de Bayonne. Il paraît qu'à Pau on n'est pas content et la réaction de M. Jaqué au cours de la réunion de Bidart, bien que diplomatique, n'a pas semblé non plus très enthousiaste. La bénédiction conjuguée de Joxe et Chérèque ne semble pas suffire au bonheur général.

"ENBATA"
Hebdomadaire Politique Basque
3, rue des Cordeliers - 64100 Bayonne
Tél. 59 25 68 03

Abonnement d'un an :
État français à partir de F. 255
Europe - Maghreb à partir de F. 320
Afrique (avion) à partir de F. 350

Amérique (avion) à partir de F. 400
Euskadi Sud - État Espagnol
à partir de 5.500 Pts

Responsable de la Publication :
Jakes ABEBERRY
Commission paritaire : 38 226

Impression : Imprimerie du Labourd — Bayonne

## CORSE

■ Enbata, dans sa dernière livraison n°1085, faisait part des journées de l'Union du Peuple Corse (UPC) les 22 et 23 juillet en présence de six députés européens.

Cette semaine, les 4, 5 et 6 août, c'est l'autre formation nationaliste de l'île, "A Cuncolta", qui organise ses journées internationales à Corte. Là encore forte représentation étrangère avec des Valdotains, un député écologiste Suisse, des Catalans, Martiniquais, Occitans, Bretons, Irlandais, les Verts et la LCR. Les Kanaks seront représentés par une délégation du FLKNS et Euskadi par Herri Batasuna.

Par ailleurs, à l'heure où nous vivons ici dans l'incertitude du devenir du Musée Basque, l'Assemblée de Corse a donné son aval au projet de Musée de la Corse à Corti. Le délai de réalisation est de quatre ans et le coût de 42 millions de francs. Le Musée sera installé dans l'enceinte de l'ancienne caserne Serrurier à la citadelle. 80 000 personnes visitent chaque été ce haut lieu de l'Histoire corse.

**Lire ENBATA, c'est bien**
**S'abonner, C'EST MIEUX**